

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 14koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.

PSIKOLOGIA FAKULTATEAko Zuzendariak egindako txostena ikusita eta lanposturako proposatutako pertsonak 2020ko irailaren 25eko ebazpenean (2020ko urriaren 6ko EHAA) eskatzen ziren betekizunak eta ezaugarriak betetzen dituela ikusita -ebazpen horretan UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askeaz betetzeko deialdi publikoa iragartzen zen-, ebazpen horren laugarren oinarria betez eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin bat etorriz (1989ko uztailaren 28ko EHAA). Gerentzia honek, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean hartutako erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena (2017ko otsailaren 3ko EHAA) erabiliz, honako hau,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- MARKIEGI AMONDARAIN, Teresita del Niño Jesús izendatzea behean azaltzen den lanpostua betetzeko:


- **Izena:** Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)
- **Erref.:** F 399
- **Eskala:** Administraria/Administrari laguntzailea
- **Taldea:** C/D
- **Zenbatgarrena:** 11
- **Maila:** 18
- **Hizkuntza eskakizuna:** 2 ; derrigorrezko data:
- **Langunea:** PSIKOLOGIA FAKULTATEA
- **BE:**
- **Campusa:** GIPUZKOA

Bigarrena.- Izendapena EHAAan argitaratu den biharamunetik ondorioak izango ditu.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean. Nahiago bada, administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Administrazio Auzietako Epaitegi egokian; horretarako hilabete bi egongo dira, Ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunean hasita. Hori guztia, Unibertsitateko Estatutuetako 160. artikuluan, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 8. eta 14. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2020ko abenduaren 14an

Gerentea,



Miren Lorea Bilbao Arteché